

## **UHARTEKO EGUNEKO AZOKAN PARTE HARTZEKO OINARRIZKO ARAUDIA**

### **1. Iraupena eta ordutegia**

Azoka 2026eko maiatzaren 16an izanen da, Uharteko Egunean, honako ordutegiarekin:

- Azokaren irekiera: 11:00etan
- Antolaketa eta muntaketa: 09-30-10:30
- Amaiera eta jasotzea: 14:30ean

### **2. Lekua**

Azoka Uharteko San Juan plazan jarriko da.

### **3. Baldintzak**

Azokan parte hartzeko beharrezkoa da Uharten erroldatuta egotea, sormenezko aisialdiko tailerretan parte hartzea edo herriarekin harremanen bat izatea.

### **4. Eskabideak jasotzea**

Azokan parte hartzeko, honekin batera doan izen-emate orria bete eta [cultura@huarte.es](mailto:cultura@huarte.es) helbidera bidali behar da. Parte hartzeko eskaerak jasotzeko epea maiatzaren 4ean, astelehenarekin, amaituko da. Epe hori igarota, ez da parte hartzeko eskaerarik onartuko.

### **5. Parte-hartzearen berrespena**

Parte-hartzearen baieztapena posta elektronikoz jakinaraziko da maiatzaren 8a baino lehen.

### **6. Postuak**

Uharteko udalaren kultura zerbitzuak mahai tolesgarriak jarriko ditu parte-hartzaileen eskura (183 X 76). Izena emateko orrian eskatu beharko dira.

Izena emateko orrian eskatzen dutenek argindarra izango dute, jarduera garatzeko ezinbestekoa bada.

Parte-hartzaileek beren materiala ere erabili ahal izango dute.

### **7. Postuak esleitzea**

Antolatzaileak postu bakoitzari dagokion lekua esleituko dio. Horretarako, bakoitzaren ezaugarriak eta beharrak baloratuko dira, inskripzio-orrian emandako informazioaren arabera. Behin lekua esleituta, errespetatu egin beharko da, salbu eta postuen artean bestelakorik adosten bada.

### **8. Erantzukizuna**

Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko azokan parte hartzen duten pertsonen jasan ditzaketen kalteen eta istripuen erantzukizuna, ezta erakusgai jarritako materialek izan ditzaketen kalteen erantzukizunik ere.

Azoka amaitu ondoren, parte-hartzaile bakoitzak okupatutako lekua garbituko du. Horretarako, Uharteko Eguna antolatzen duen taldearen laguntza izango du.

### **9. Aldaketak, ezereztea eta lekualdaketa**

Antolakuntzak aldaketak egiteko eskubidea izango du, baita eguraldi txarragatik azoka bertan behera uzteko edo lekuz aldatzeko eskubidea ere.

## **NORMATIVA BÁSICA DE PARTICIPACIÓN DE LA FERIA DEL DÍA DE HUARTE**

### **1. Duración y Horario**

La feria tendrá lugar el día 16 de mayo de 2026, Día de Huarte / Uharteko Eguna, con el siguiente horario:

- Apertura de la feria: 11:00h
- Organización y montaje: 09-30-10:30h
- Finalización y recogida: 14:30h

### **2. Lugar**

La feria se instalará en la Plaza San Juan de Huarte.

### **3. Requisitos**

Para participar en la feria es necesario estar empadronado o empadronada en Huarte, participar en los talleres de ocio creativo o tener alguna relación con el municipio.

### **4. Recepción de solicitudes**

Para participar en la feria es preciso completar la hoja de inscripción que se adjunta y enviarla a [cultura@huarte.es](mailto:cultura@huarte.es). El plazo para la recepción de solicitudes de participación finalizará el lunes 4 de mayo. Pasado este plazo, no se admitirán solicitudes de participación.

### **5. Confirmación de participación**

La confirmación de participación se notificará mediante correo electrónico antes del 8 de mayo.

### **6. Puestos**

El servicio de cultura del Ayuntamiento de Huarte pondrá a disposición de los participantes mesas plegables (183 X 76). Se deberán solicitar en la hoja de inscripción.

Dispondrán de toma de luz quienes lo soliciten en la hoja de inscripción y si es imprescindible para desarrollar la actividad del puesto.

Las personas participantes que dispongan de material propio, también lo podrán utilizar.

### **7. Asignación de puestos**

La organización asignará el espacio correspondiente a cada uno de los puestos. Para ello, se valorará las características y necesidades de cada uno de ellos conforme a la información aportada en la hoja de inscripción. Una vez asignado el espacio se deberá respetar, salvo que entre puestos se acuerde lo contrario.

### **8. Responsabilidad**

La organización no se hace responsable de los daños y accidentes que pudieran sufrir las personas participantes en la feria, ni asume responsabilidad alguna en los daños o desperfectos que pudieran sufrir los materiales expuestos.

Tras finalizar la feria, cada participante procederá a la limpieza del lugar ocupado. Para ello, podrá contar con la ayuda del grupo de la organización del Día de Huarte / Uharteko Eguna.

### **9. Cambios, cancelación y traslado**

La organización se reserva el derecho de cualquier modificación de la feria, así como para la anulación o traslado de la misma por inclemencias del tiempo.